



**Hezkuntza publikoan  
lan baldintzak hobetu.**  
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**  
Martxoak 27ko greba balorazioa

## **EAEko hezkuntza publikoko irakasleek gaur Donostia hartu dute**

### **Greba zikloaren 7. grebak jarraipen zabala izaten jarraitzen du**

Atzokoan Bilbo, Donostia eta Gasteizko kaleak bete zituzten hezkuntza publikoko irakasleek. **Manifestazioetan 12.000 irakasle baino gehiago**k parte hartu zuen inoiz baino ozenago eskatuz beraien egunerokoan beharrezkoak diren baliabideak. Gaurkoan beretsu gertatu da Donostian egindako manifestazio bateratuan.

Sindikatuak garbi daukate ez dagoela benetako negoziatorik. Hezkuntza Sailak badaki zein eduki jarri behar dituen gatazka gainditzeko, bere jarrera ordea, negoziazioa etetea izan da greban dauden bitartean. Irakasleek argi utzi dute zein den beraien asmoa eta helburu horrekin **borrokan tinko jarraituko dute benetako negoziazioa gauzatu arte.**

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak aste honetan deitutako grebek jarraipen zabala izan dute; izan ere, grebara deitutakoen **%75ak babestu du greba**. Grebaren ziklo honetan **"Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!"** lelopean deitutako mobilizazioan milaka langile ari dira elkartzeko eta behin eta berriz salatu dute Hezkuntza Sailaren jarrera: hezkuntzako irakasleen lan-baldintzak okertzen ari dira, Hezkuntza Sailak erabakiak aldebakarrez hartzen ditu eta negoziazioak eduki esanguratsu gabe etengabe luzatzen ditu.

Argi dago grebak direla Jaurlaritza mugiarazten dutenak. Sindikatuok benetako negoziazio erreala burutu nahi dute, hitz eta asmo politetatik harago. **Edukia, zehaztapena eta konkrezioa behar du balizko akordioak.**


Zazpigarren greba egun honetan ere, **irakasleok oso mezu argiak** helarazi dizkiote Hezkuntza Sailari:

- 15 urte direla hitzarmena eguneratu gabe; eta aski dela.
- Lan zamak arintzea, plantilak gazteberritzeko plan egokia ezartzea, enplegu publikoa kontsolidatu eta bermatzea, eros ahalmena berreskuratzea, lan osasuna zein euskara eta hezkidetzak bermatzeko neurriak proposatzeko garaia dela.
- Ez badago aldarrikapen hauekiko erantzunik grebetan jarraitzeko indarrekin daudela.

Beraz, Hezkuntza Sailari eduki, **zehaztapen eta konkrezioak dituzten mahaia deitzeko exijitzen diote.** Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitzea eta lan baldintzak hobetzea eta eskola publikoa baliabideez hornitzea.

Aste honetako grebei jarraipena emanez, **datorren astean beste greba deialdi bi egin dituzte**, apirilaren 1 eta 2rako, hezkuntza publikoko irakasleek kaleak betetzen jarrai ditzaten sektoreko aldarrikapenak axijituz.





Mejora de las condiciones  
laborales en la educación  
pública.  
Decididas aquí y ahora.

**Nota de prensa:**  
Valoración de la huelga del 27 de marzo

## El profesorado de la enseñanza pública vasca de la CAV ha tomado las calles de Donostia

### La séptima huelga del ciclo de huelgas continua teniendo un amplio seguimiento

En la jornada de ayer el profesorado de la enseñanza pública llenó las calles de Bilbo, Donostia y Gasteiz. **Más de 12.000 profesores/as participaron en las manifestaciones** exigiendo con más fuerza que nunca las reivindicaciones necesarios en su día a día. Hoy la manifestación ha sido centralizada en Donostia.

Los sindicatos tienen claro que no hay negociación real. El Departamento de Educación es consciente de los contenidos que tiene que poner para superar el conflicto, pero su postura ha sido cortar la negociación. El profesorado ha dejado muy claro cuál es su intención y **seguirá luchando con ese objetivo hasta que se lleve a cabo una negociación real.**

Las huelgas convocadas esta semana por los sindicatos STEILAS, LAB, ELA y CCOO han tenido un amplio seguimiento, ya que han sido **respaldadas por el %75 de las personas convocadas.** La movilización, convocada bajo el lema **"Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!"**, ha contado con la presencia de miles de profesoras y profesores de la enseñanza pública. Miles de profesoras y profesores han denunciado en la CAV la actitud del Departamento de Educación: las condiciones laborales del profesorado de Educación están empeorando, el Departamento de Educación toma decisiones unilateralmente y las negociaciones se prolongan sin contenido significativo.

Es evidente que son las huelgas las que mueven al Gobierno Vasco. Los sindicatos quieren una negociación real, más allá de las palabras y las intenciones bonitas. **El posible acuerdo requiere contenido y concreción.**

Asimismo en esta séptima jornada de huelga, **el profesorado ha trasladado mensajes muy claros** al Departamento de Educación:

- 15 años sin actualizar el acuerdo laboral. ¡Ya basta!
- Aliviar las cargas laborales, establecer un plan adecuado para rejuvenecer las plantillas, consolidar y garantizar el empleo público, recuperar el poder adquisitivo. Es hora de proponer medidas para garantizar tanto la salud laboral como el euskara y la coeducación.
- Si no hay respuesta a estas reivindicaciones tenemos fuerza para seguir en huelga.

Por tanto, **exigen al Departamento de Educación que convoque mesas con contenido y concreción.** Es imprescindible aumentar la inversión y mejorar las condiciones laborales y dotar de recursos a la escuela pública si se quiere reforzar la educación pública.

Dando continuidad a la jornada de hoy, los sindicatos hacen el **llamamiento al profesorado de la educación pública vasca de seguir con el ciclo de huelgas los días 1 y 2 de abril.**

